



Arartekoaren 2018S-1081-16 Ebazpena, 2018ko maiatzaren 24koa. Horren bidez, Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailari iradokitzen zaio berriz azter dezan diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria onartzeko eskaera bat artxibatu izana.

Aurrekariak

1-. Herritar batek kexa bat aurkeztu zuen Arartekoan, ados ez zegoela-eta diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria aitortzeko eskaeraren izapideari lotuta Lanbidek egindako jardunarekin.

Kexagileak prestazio biak aitortzeko eskaera egin zuen 2016ko martxoaren 9an. Urte bereko maiatzaren 3an, dokumentazio eskaera bat jasotzen zuen entzunaldi izapide bat jakinarazi zitzaion. Lanbidek zioen betekizunak agian ez zirela bete hauteman zuela eskatzailea emakume batekin ezkondua zegoela uste baitzuen; arrazoi hori dela, entzunaldi izapide bat zabaldu zuen gai horri buruzko azalpena eskatzeko, eta ustez bere ezkontidea izaten jarraitzen zuenari buruzko dokumentazioa aurkezteko eskatu zuen.

Kexagileak erantzun zuen diru-sarrerak bermatzeko errenta eskatu aurretik amaitu zela senar-emazteen arteko harremana; ildo horretan, Erregistro Zibileko ziurtagiria aurkeztu zuen, eta bertan jasotzen da 2015eko azaroaren 12ko epaiaren bidez dibortziatu zirela. Halaber, Zuzenean zerbitzuan 2016ko maiatzaren 19an erregistratutako idazkiaren bidez, jadanik dibortziatuta egoteak administrazioak eskatzen zion berari buruzko gainerako dokumentazioa aurkeztea eragozten zion.

Kexa aurkeztu zen datan, maiatzaren 19an, kexagileak adierazi zuen ez zuela oraindik ebazpenik lortu, bere eskaera onartu, artxibatu edo ukatzen zuena, alegia.

2-. Kexa behar bezala izapidetze aldera, Arartekoak laguntza eskatu zion Lanbideri puntu hauen gaineko azalpen zehatzagoa jasotzeko:

- a) Kexagileari prestaziorako eskubidea aitortzeko eskaerari 18/2008 Legearen 62.2. artikuluan aipatutako epean erantzun ez izanaren arrazoi zehatzak.
- b) Zure gogoetak, administrazio-isiltasunaren bidezko baiespenaren eta horrek bi prestazioak aitortzean izan ditzakeen ondorioen inguruan.





- c) Lanbidek kexadunaren ezkontide ohiari buruzko dokumentazioa eskatzeko arrazoiak, behar beste egiaztatu bada dibortzio-epaia dagoela.
- d) Nolanahi ere, eskatzen dizut Lanbideko zuzendari nagusiak eskaera ebazteko idatziko duen ebazpenaren kopia helaraz diezaguzula.
- e) Kexaren xedearekin erlazionatuta dagoen eta gure jardunerako interesgarria izan daitekeen beste edozein inguruabar.

3-. Erantzunik jaso ez genuenez, erakunde honek errekerimendu bat bidali zizuen, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 23. artikuluan xedatzen duenarekin bat eginez erakunde honi lehentasunez eta presaz erantzutera behartuta zaudetela gogorarazteko.

4-. Erakunde honek berriki jaso duen erakunde autonomoaren erantzunean, honako hau aipatzen da:

“Jasotako idazkia aztertu ondoren, egiaztatu genuen eskatzaileak XXX XXXekin dibortziatu izanaren erregistroaren kopia bat aurkeztu zuela. Alabaina, ez dugu ikusi artxibatze-ebazpenari kontra egiten dion berraztertze-errekurtsorik, eta horrek akatsa zuzentzeko aukera eman izango liguke. Horrenbestez, eskatzaileak beste eskaera bat egin beharko du, eta hori oinarri hartuta baloratuko da baldintzak betetzen dituen edo ez.”

5-. Erakunde honetako langileak kexagilearekin harremanetan jartzen saiatu da gaur egun diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren titularra zen edo ez jakinaz zezan; ezin izan dute, baina, harekin harremanetan jarri.

Beharrezko egitate eta zuzenbide elementuak dauzkagula uste dugunez, honako gogoeta hauek egin nahi ditugu:

Gogoetak

1. Euskal Enplegu Zerbitzuak kexagileak aurkeztutako diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria aitortzeko eskaera artxibatu du, arrazoi honetan oinarrituz: maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren, Diru Sarrerak Bermatzeko Errentari buruzkoaren, 28.1.e) artikuluan ezarritakoa ez dela bete, zehazki, bikotekide ohiari buruzko dokumentazioa ez aurkezteagatik administrazio horrek dokumentazio-eskaera igorri ondoren.





Alde horretatik, maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 30.3. artikulua agintzen duenez, eskaeran akatsak edo kontraesanak hautematen badira, edo hura osatu gabea bada edo dekretu horren 28. eta 29. artikuluen betekizunak betetzen ez baditu, Lanbidek eskatzaileari edo beste erakunde publiko edo pribatu batzuei beharrezkotzat jotzen duten beste edozein datu, dokumentu edo txosten eskatuko dio espedientea osatu edo zuzentzeko. Nolanahi ere, eskatzaileak hamar eguneko epea izango du eskaera behar den moduan zuzendu edo osatzeko, eta hala egin ezean, *"...eskaeran atzera egin duela joko da, udalak aztergai den zirkunstantzia, izandako gertakariak eta aplikatzekoak diren arauak adierazten dituen ebazpen bat eman ondoren"*.

Hizpide dugun kasuan, kexagileak egiaztatu du administrazioari jakinarazi ziola senar-emazteen arteko harremana amaitu zela; estreinakoz, 2016ko martxoaren 9an eskaera aurkeztu zuen unean, 2015eko azaroaren 12ko dibortzioko epaia aurkeztuz; horren ondoren, bere erantzunaren azalpen idazkiaren bidez, Lanbidek egindako dokumentazio eskaera jaso ondoren.

Enplegu erakunde autonomoak Arartekora igorritako idazkian jakinarazi duenez, eskaerari erantsitako dokumentazioaren balorazioan akats bat izan zela egiaztatu bada ere, kexagileak ez zuen aukerako berraztertze errekurtsorik aurkeztu bere eskaera artxibatze adierazten zuen ebazpenaren aurka; beraz, akats hori ezin izan da zuzendu. Hala, arrazoi nahikoa da hori, administrazio horren arabera, eskaera berriz aztertzea egokia ez dela irizteko.

2. Prestazioak aitortzeko espedientean atzera egin da. Horren ondorioz, diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria berriz aurkezteko aukera dago, Lanbideko zuzendari nagusiak Arartekora bidalitako txostenak ezartzen duen moduan. Nolanahi ere, prestazioak aitortzeko data ez da, irtenbide horrekin, kexagilearen eskaera behar bezala izapidetuta

lido horretan aipatu behar da, atzera egitea prozedura administratibo bat bukatzeko ezohiko modua dela, eta, interesdunak hala eskatuta abiarazitakoetan, pertsona horrek jadanik hasi den prozedurari uko egitea edo hori bertan behera uztea dakarrela. Horrenbestez, atzera egiteko ezinbestekoa da interesdunak prozedura amaitu nahi izatea.

Eskatzaileak entzunaldi izapideari eta dokumentazio eskaerari erantzun zien, biak ala biak Lanbidek 2016ko maiatzaren 3an egindakoak; halaber, hautemandako





balizko ez-betetzeekin ados ez zegoela aurreratu zuen, eta bere esku duen dokumentazioa aurkeztu zuen berriz enplegu erakunde autonomoak proposatutako gaien harira, hau da, Erregistro Zibilaren kopia; bertan, senar-emazteen harremana epaitegiak 2015eko azaroaren 12an emandako dibortzioko epaiaren bidez desegin zela jasotzen da.

Eskaera artxibatzeko adierazten zuen ebazpenaren jakinarazpena jaso aurretik ere, kexagileak dagoeneko erakunde honetara jo zuen, eta kexa bat jarri zuen diru-sarrerak bermatzeko errentaren eskaera izapidetzea dela-eta Lanbidek egindako jardunagatik. Ildo horretan, enplegu erakunde autonomoaren jarduketekiko desadostasuna Arartekoak Lanbideri helarazi zion 2016ko ekainaren 7an egindako lehenengo informazio eskaeran.

Finean, entzunaldi izapideari emandako erantzunean nahiz Arartekoan aurkeztutako kexa batean Lanbidek egindako jarduketarekin bat ez etortzea, bere desadostasuna zinez erakusteko jarduketa gisa interpreta daiteke.

Beste era batera esanda, administratuak ebazpen horren aurka duen iritzia, erakunde honen aburuz, oso agerikoa da, Lanbidek ofizioz jarduketa bat abiarazi ahal izateko modukoa, xede hau lortze aldera: diru-sarrerak bermatzeko errenta onartzeko administrazio espedientean jasotako dokumentazioaren balorazio-akatsa zuzentzea.

Gainera, erakunde honen ustez, Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren eskaera ebazteko behar adina informazio zuen. Administrazioak ezin du eran arbitrarioan edozein agiri eskatu; aitzitik, ebazpena emateko oinarritzat hartu behar diren datuak zehazteko ezinbestekoak direnak soilik eskatu ahal ditu. Horrek esan nahi du eskatu diren eta aurkeztu ez diren agiriak nahitaezkoak ez badira, administrazioa ez dagoela zuzentzeko edo agiri horiek aurkezteko eskatzera behartuta (gaituta ere ez dago).

Alde horretatik, Auzitegi Gorenaren (administrazioarekiko auzien salaren 6. atala) 1997ko uztailaren 7ko epaiak honako hau jasotzen du: *"...la omisión de datos y errores exige, según el artículo 71, que el órgano administrativo competente se lo haga saber al interesado, señalando dichos errores y omisiones y concediéndole un plazo de diez días para la subsanación, con la advertencia de que si no lo hiciera se archivará el expediente con los efectos prevenidos en el artículo 42, pero como advierte la Sentencia de esta Sala (antigua Sala Cuarta) de 16 de marzo de 1988, la Administración no puede arbitrariamente exigir cualquier documentación, sino*





aquella que sea indispensable para fijar los datos en base a los cuales ha de dictarse la resolución y esos datos han de ser ignorados por la Administración, ya que si ésta los conoce, por haber presentado el interesado los documentos que se le piden, no tiene alcance la indicada consideración, tratándose de datos suficientes para resolver y para dictar la correspondiente resolución..." (FD4).

Hortaz, Lanbidek ezin du berriz eskatu dagoeneko aurkeztu den dokumentazioa, ezta gaiaren funtsaren gainean adierazpen bat egiteko nahitaezkoak ez diren agiriak ere.

Aurrez aipatu den moduan, aurkeztu gabeko dokumentazioak kexagileak dagoeneko senar-emazte harremanik ez zuen pertsona bati eragiten zion; egoera horren berri bazuen jadanik Lanbidek prestazio-eskatzailleak Gasteizko Erregistro Zibilean dibortzioa erregistratuta zegoela adierazten zuen dokumentua aurkeztu baitzuen 2016ko martxoaren 9an prestazioak aitortzeko eskaera aurkeztu zen unetik bertatik. Halaber, Lanbidek egindako eskaerari erantzunez, eskatutako dokumentazio osoa zergatik ezin zuen aurkeztu azaldu zuen kexagileak, ezkontide ohiari dagokion dokumentazioa baitzen.

3. Erakunde honen aburuz, urriaren 1eko 39/2015 Legearen, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoaren, 109. artikulua agindutakoa aplikatuz, ofizioz egin beharrezko berrikuspenari dagokionez, zehazki *Egintzak baliogabetzea eta akatsak zuzentzea* aipatzen denean, Lanbidek bere akatsa zuzendu beharko luke eta kexagilearen diru-sarrerak bermatzeko errenta eskaera artxibatzeke adierazi zuen ebazpena berrikusi.

Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen agindu horrek honako hau ezartzen du:

"1. Administrazio publikoek edozein unetan erreboka ditzakete, preskripzio-epea bete ez den bitartean, kargak ezartzen dituzten edo inoren kalterako diren beren egintzak, betiere errebokazio hori ez bada legeek onartzen ez duten lekaperen edo salbuespena, eta ez bada berdintasun-printzipioaren, interes publikoaren edo ordenamendu juridikoaren aurkakoa.

2. Administrazio publikoek edozein unetan zuzendu ditzakete, ofizioz edo interesdunen eskariz, beren egintzetako errakuntza materialak, egitezkoak edo aritmetikoak. "





Finean, Arartekoak uste du eskaera-espedientea bideratzeko orduan Lanbidek egindako akatsak (hura jakinarazi zaidio erakunde honi eta bertan aitortu kexa espediente honen izapidean egindako informazio eskaerari erantzunez) ebazpena berrikustea ekar zezakeela; haren bidez, diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria onartzeko eskaeran atzera egin dela erabaki da.

Azaldutako guztiagatik, eta otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –Ararteko erakundea sortu eta arautzekoak– 11.b) artikuluan agindutakoaren arabera, honako iradokizun hau egin zaidio Eusko Jaurlaritzako Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailari:

IRADOKIZUNA

Lanbidek berriz azter dezala diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria onartzeko eskaeran atzera egiten dela eta artxibatu egiten dela adierazten zuen ebazpena.

